

Barrutiako zuzendaritza taldea eta ikasleen herrietako alkateak edo ordezkariak
2014/01/17

a) Deialdia

Eguna: **2.014/01/17**

Ordua: 12:00etan

Lekua: Barrutia Herri Ikastetxean

b) Etorritakoak

Ajangiz: Mikel Ander Zubizarreta (Alkatea)

Arratzu: Irene Cenigaonaindia (Zinegotzia)

Ea: Juan Luis Landazabal (Alkatea)

Elantxobe: Juan Francisco Lachiondo (zinegotzia)

Ereño: Joseba Zarragoikoetxea (alkatea)

Gernika: Iñaki Gorroño (zinegotzia)

Aritz Ojinaga (Teknikoa)

Ibarrangelua : Jesús M^a ziluaga (alkatea)

Kortezubi: Ibon Legarza (Zinegotzia)

Mendata: Joseba Mallea (alkatea)

Nabarniz : Arantza Goikolea (alkatesa)

Falta izan direnak : Errigoiti : Iñaki Madariaga (Alkatea)

1) Gaurko gaia/k

2013ko kontuen likidazioa

2014rako kontu-inbertsioen onarpena

Hitzarmena kontuen likidaziorako

Inbertsio eta mantenu gastuak, 2013an erabaki zenez, ikasle kopuruaren arabera izango dela kontuan izanik, zuzendariak 2013/2014 ikasturteko ikasleen jatorrien taula banatzen du, udal bakoitzeko ikasleen portzentajea zehazten duena.

Aritz Ojinagak, Gernikako teknikaria, 2013ko kontuen likidazioa azaltzen du; eta, datuak eguneratu ondoren, **udal bakoitzak egin behar duen diru ekarpena apirilerako egingo dela adosten da.**

2014.eko aurrekontutako lana leihoak berriztatzen amaitzea da; eta, zeregin hori amaitu ondoren, lehentasunen zerrendan ipinita zegoenez, berogailu sistema aldatzeari ekingo zaiola ipintzen da mahai gainean. Berogailu sistema desberdinak aztertuko ditu teknikariak, betiere kontuan hartuz eraikinaren ezaugarriak (iparrak eta hegoaldeak behar duten trataera desberdinez, erregai motak, deposituen kokapena eta mantenua, erradiadoreen giltza sistema, hormen isolamendua ...) Datu guztiak bildu ondoren, aztertuko dira posibilitate ezberdinak, eta, oso inbertsioa handia balitz, zatika ere egin daiteke; baina EVEk, gaur egun, ematen dituen diru-laguntzak gastuen %80tik gora denez, deialdiei adi egongo dela esaten da.

Udalerrietan ordezkariak aldatzen direnez “hitzarmen egonkorra idatzi eta sinatzea” komeni dela komentatzen da; Gernikako idazkariak egingo du proposamena, gero denon artean aztertu eta sinatzeko. Hitzarmenaren helburua osatutako eta martxan jarri den lan taldeari egonkortasuna ematea izango da.

2014/2015 ikasturtetik aurrera Ean dagoen HAIZEDER eraikina, Hezkuntza Sailak esan duenez, independente izango dela jakinarazten da.

2) Erabakiak

Diru ekarpena apirilean

3) Hurrengo bilera eguna

2014ko irailean

Honela, besterik gabe, amaitutzat ematen du batzar hau eta nik neuk idazkariaren fedea ematen dut

ZUZENDARIA
M^a Begoña Diaz de la Torre

IDAZKARIA
Agurtzane Renobales